



## “Literaturaz ez dugu hitz egingo?”

Uxue Apaolaza | Idazlea-edo

2005ean argitaratu zuen ipuin liburu bat eta idazletzat dute geroztik.

ARITZ GALARRAGA

Argakia: Uxue Apaolazak utzia

**Zure azken liburuaz galdetu nahi nizun, Uxue, baina hainbeste urte joan dira irakurri nuenetik...** Ez zinateke liburuak irakurri gabe ere idazlea elkarrizketatzen duen lehenengoa. Hala ere, nahi baduzu, hitz egin dezakegu beste gai batzuek.

**Ez dakizu modan egoteko, Amélie Nothomb-ek bezala, urtean liburu bat argitaratu behar dela?**

Kontua modan egotea bada bururatzen zaizkit modu hobekak liburuak idaztea baino. Hala ere, asko kostatzen zait zerbait bukatuta dagoela erabakitzea, urte bat oso denbora gutxi iruditzen zait.

**Gogoratzen dut zakil asko, aluak baino ez zirela agertzen. Probokazio hutsa.**

Zakil eta alu hitzarekin gertatzen zaizue batzuei, ETArekin beste batzuei. Testuan agertzen bada ez duzue besterik ikusten. *Gantxo* ona dira dirudienek. Ez nuen uste zuk zakil edo alu batzuk probokaziotzat joko zenituenik hala ere...

**Euskal irakurlearen ahotsa nauzu hemen.** Ze soberbia.

**Zakil eta aluez ari garela, *Volgako Batelariak* aldizkariko lehen emakumea zara. Bazen garaia! Zergatik? Paritatea gobernuaren kontua da...**

**Ar gehiegi ziren batera, gauza onerako.**

Arrak baino askoz gehiago dira –nik ez nuke “arra” inoiz erabiliko beraietako bat ere deskribatzeko–, baina gauza onerako, ba ziurrenik ez.

**Hor ere, ordea, emakumea nahikoa lorontzi...**

Volgako Batelari guztiek nahi genuke ziurrenik lorontzi izan –kontsultatu behar nuke–, baina

fisikoak ematen ez duenez idazle izaten saiatu gara. Badirudi Euskal Herriko zenbait bilertan hala kontsideratzea lortu dugula, batzuek besteok baino gehiago. Noski, ez da lorontzi izatea bezain bistosoa.

**Idazle izateko idatzi beharko da ba...**

Eskerrik asko idazle deitzeagatik. Hala ere, argitaratu, egunean zutabe bat argitaratu dut hiru urtez. Idatziren lekuan argitaratu esan nahi zenuen, ez?

**Hori da, argitaratu esan nahi nuen. Dagoeneko ez dira zutabeak argitaratzen.**

Aurten nirekin ez kontatzea erabaki dute.

**Baten batek esango zuen: Hernanikoa izan eta horrelako gauzak idaztea ere...**

Horrelakoak, nolakoak? Abortuari buruzkoak? Edo berriro ETA hitzaz galdetzen didazu? A ez, zakil eta aluak ziren...

**ETA bitan agertu da jada, eta nik ez nuen nahi.**

Modan egoteaz galdetu didazu, “alua” eta “zakila” hitzekin hasi zara, pentsatu dut nik ere zerbait jarri behar nuela nire partetik elkarrizketa irakurria izan dadin, eta ETAk, egunkariak irakurri besterik ez dago, publiko zabala du.

**Igartza saria eman berri dizute, sare sozialak presente dauden *Hiltzailea* nobela-proiektuagatik. Facebook-a uzten badut, agian, hobeto?**

Egin dizkidazun galderen ondoren behar bada... Ideia ona Facebook hitza ere elkarrizketan agertzea, jakin izan banu sare sozialak aipatuko zenituela ez genuen ETArekin beharrik izango. Literaturaz ez dugu hitz egingo? ■